

## IRABAZI ITURRIAK

Erabilera primaren baliabidea erabili ahalko genuke, baina gure ustez garraio publikoaren erabilpena errazteko zerbitzuak doakoak izan behar dira, beraz ez dugu baliabide hau erabiliko.

Harpidetza prima ere erabiltzeko aukera izango genuke. Honen bidez, harpidetza baten bidez baldintza hobek eskaintzeko aukera izango genuke, eta dirua lortu.

Hala ere, diru iturri argiena publizitate bidez ikusten dugu. Azkenean, gure aplikazioaren funtzionamendurako elkarte batzuekin harremanak egin beharko ditugu, eta elkarte horiei publizitatea eta jendearen erabilpena bultzatuko dugu, beraz elkarte horiek dirua eman beharko digute publizitatea egiteagaitik. Bestalde, babesle batzuk izan ditzakegu, publizitatea egiteagaitik dirua ematen digutenak (gure kasuan agian autobus, tren edota garraio ezberdinen enpresei publizitatea egin diezakegu).

Ondorioz gure diru sarrerak ez dira ordainketa bakarrekoak izango ordainketa errepikariak baizik.

